BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN AYUNTAMIENTO DE ERMUA-ERMUKO UDALAREN ETA IZARRA FUNDAZIOAREN, ARTEKO HITZARMENA, “BIZKAIKO ETE INDUSTRIALENTZAKO DATU-GUNEA” PROIEKTUA SUSTATZEKO

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA-ERMUKO UDALA Y LA FUNDACIÓN IZARRA PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO “ESPACIO DE DATOS PARA PYMES INDUSTRIALES DE BIZKAIA”.

BILDU DIRENAK

SE REUNEN

Batetik, Ainara Basurko Urkiri andrea, ekonomia sustatzeko foru diputatua, erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025eko aren ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenak erabiliz.

De una parte, Ainara Basurko Urkiri diputada foral de promoción económica en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha de de 2025.

Bestetik, Josu Ansola Ormazabal jauna, Ermuko Udalaren izenean eta ordezkaritzan (IFZ: P4804100H), Ekonomiaren Garapena eta Enplegua Saileko zuzendari gisa, bidezko ahalekin bat jarduten duena.

De otra, Josu Ansola Ormazabal, en nombre y representación del Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala (NIF P4804100H), en calidad de Dtor. Desarrollo Económico y Empleo y en virtud de los poderes correspondientes.

Eta bestetik, Juan Carlos Abascal Candas jauna, Izarra Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan (IFZ: G95698973), fundazio horren ordezkari gisa eta bidezko ahalekin bat jarduten duena.

Y de otra, Juan Carlos Abascal Candas, en nombre y representación de la Fundación Izarra (NIF G95698973), en calidad de representante y en virtud de los poderes correspondientes.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena eta hauxe

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren zeregina Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen esparruan lehiakortasun

PRIMERO

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jasangarria eta nazioartekotzea bultzatuz eta, aldi berean, lurraldearen garapen orekatua erraztuz.

sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio.

Horretarako bost ardatz estrategikotan oinarritutako sustapen ekonomikorako politika publikoak garatzen ditu: talentua, ekintzailetza aurreratua, industriaren lehiakortasuna eta zerbitzu aurreratuak, lurralde orekatu eta kohesionatua, eta Bizkaia ireki eta erakargarria.

Para ello, desarrolla políticas públicas de promoción económica centradas en cinco ejes estratégicos: el talento, el emprendimiento avanzado, la competitividad de la industria y los servicios avanzados, un territorio equilibrado y cohesionado, y una Bizkaia abierta y atractiva.

"Bizkaia orekatua eta kohesionatua" ardatzaren bidez, eskualde guztien lehiakortasuna bultzatzen du, aukera-berdintasuna bermatzeko eta lurralde osoan garapen ekonomiko jasangarria sortzeko.

A través de su eje "Bizkaia equilibrada y cohesionada", impulsa la competitividad de todas las comarcas para garantizar la igualdad de oportunidades y generar desarrollo económico sostenible en todo el territorio.

Estrategia hau Eskualdeko Plan Estrategikoak (EPE) aktibatzean gauzatzen da, hala nola Debabarrenakoa. Plan horiek, tokiko eragileen lankidetzaren bidez, ekosistema industriala indartzea, digitalizazioa sustatzea eta enpresa-jarduera berritzaile berria erakartzea dute helburu.

Esta estrategia se materializa en la activación de Planes Estratégicos Comarcales (PEC), como el de Debabarrena, que buscan, mediante la colaboración de agentes locales, reforzar el ecosistema industrial, fomentar la digitalización y atraer nueva actividad empresarial innovadora.

Ardatz horien barruan Ekonomia Sustatzeko Sailak produkzio-sarearen eraldaketa digitala lehenesten du, bai eta datuaren ekonomia baterantz aurrera egitea ere, biak ala biak industriaren lehiakortasunerako funtsezko palankatzat hartuta.

Dentro de estos ejes, el Departamento de Promoción Económica prioriza la transformación digital del tejido productivo y el avance hacia una economía del dato, considerándolos palancas esenciales para la competitividad industria.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Denontzat 2023-2027 estrategiaren esparruan, erronka nagusienetako bat ezarri du Bizkaia lurralde berritzaile, talentudun, erakargarri, ireki, kontzentratu eta orekatu gisa kokatzeko, erakundeen arteko lankidetzan eta lankidetza publiko-pribatuan oinarritzea.

La Diputación Foral de Bizkaia, en el marco de la estrategia Bizkaia Denontzat 2023-2027, ha fijado como uno de sus principales objetivos fortalecer el posicionamiento de Bizkaia como territorio innovador, con talento, atractivo y abierto, conectado y equilibrado, basado en la colaboración interinstitucional y la colaboración público-privada.

BIGARRENA

SEGUNDO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmen honen xedea da Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udalari eta Izarra Fundazioari zuzeneko dirulaguntza emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea "Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektua gauzatu dezan.

Proiektuaren helburua datu-gune federatua diseinatzea, hedatzea eta erabiltzea da, industria-enpresen, administrazio publikoaren eta berrikuntza-ekosistemako beste eragile batzuen arteko datu-partekatze segurua, kontrolatua eta trazagarria bideratuko duena balioa, lehiakortasuna eta berrikuntza sortuz.

HIRUGARRENA

Ermuko Udalak, lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekin eta ekoizpen sarearen eraldaketa digitalarekin duen konpromisoan, "Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektuaren erakunde lider eta bultzatzaile gisa dihardu. Udalaren zeregina hitzarmen honetan datuen espazioaren operadore neutrala izatea da, eta azpiegitura komuna eskaintzeaz, gobernantza-eredua zuzentzeaz eta parte-hartzaileen artean konfiantza sortzeaz arduratzen da.

Ekimen hau bat dator Udalak bere inguruko enpresentzat, bereziki ETEentzat, gaitasun digital aurreratuetarako eta berrikuntzarako lankidetza-ereduetarako sarbide zuzena sustatzeko duen estrategiarekin.

Bestalde, Izarra Fundazioa, Udalarekin lankidetzan, funtsezko pieza izan da proiektu honen oinarri den aurretiko esperientzia garatzeko: "IoT Basque Izarra Lab" berrikuntza teknologikoko laborategia. Proiektu berri honetan Izarra Fundazioak bere gain hartuko du datu-gunearen instantzia zentrala edo

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra para la ejecución del proyecto "Espacio de datos para PYMES industriales de Bizkaia".

El objetivo del proyecto es el diseño, despliegue y operación de un espacio de datos federado que facilite la compartición segura, controlada y trazable de datos entre empresas industriales, administración pública y otros agentes del ecosistema de innovación, para generar valor, competitividad e innovación.

TERCERO

El Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala, en su compromiso con el desarrollo económico y social del territorio y la transformación digital del tejido productivo, actúa como la entidad líder e impulsora del proyecto "Espacio de Datos para PYMES Industriales de Bizkaia". Su rol en este convenio es el de ser operador neutral del espacio de datos, encargándose de facilitar la infraestructura común, liderar el modelo de gobernanza y generar confianza entre los participantes.

Esta iniciativa se alinea con la estrategia del Ayuntamiento de promover el acceso equitativo a capacidades digitales avanzadas y modelos colaborativos de innovación para las empresas de su entorno, especialmente las pymes.

Por su parte, la Fundación Izarra, en colaboración con el Ayuntamiento, ha sido una pieza clave en el desarrollo de la experiencia previa que fundamenta este proyecto: el laboratorio de innovación tecnológica "IoT Basque Izarra Lab". En este nuevo proyecto, la Fundación Izarra asumirá la responsabilidad de gestionar la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egituratzailea kudeatzeko ardura, eta parte-hartzaileen erregistroaz, konexioen koordinazioaz eta atxikitako enpresentzako euskarri tekniko eta funtzionalaz arduratuko da. Gainera, Izarra Fundazioak funtsezko aurrekontu-partidak gauzatuko ditu oinarrizko plataforma garatzeko, erabilera frogagarrien kasuak inplementatzeko eta proiektuaren komunikazio estrategikoa egiteko.

"Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak "Industria eta zerbitzu aurreratuak" sustatzeko duen estrategiaren barruan kokatzen da. Estrategia hau Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatzen du, digitalizazioaren eta teknologia aurreratuen bidez Bizkaiko industria-sarearen lehiakortasun iraunkorra indartzeko.

LAUGARRENA

"Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektuaren helburua azpiegitura digital partekatu, elkarreragile eta segurua sortzea da, Ermua inguruko ekosistema produktiboan datuaren ekonomia gaitzeko balioko duena. Proiektu hau enpresek, batez ere enpresa txiki eta ertainek (ETEak), datuen kudeaketa, analisi eta ustiapen estrategikorako gaitasun aurreratuak eskuratzeko dituzten oztopo teknologikoak, antolakuntzakoak eta juridikoak gainditzeko sortu da.

Esparru honetan helburu orokor bat lortu nahi da: datu-espazio federatu bat diseinatu eta hedatu eta horren jardun, industria-enpresen, administrazio publikoaren eta berrikuntza-ekosistemako beste eragile batzuen arteko datu-partekatze segurua, kontrolatua eta trazagarria bideratzeko. Eredu hau elkarlaneko gobernantzan oinarrituko da, eta bat etorriko da

instancia central u orquestadora del espacio de datos, encargándose del registro de participantes, la coordinación de las conexiones y el soporte técnico y funcional a las empresas adheridas. Además, la Fundación Izarra ejecutará partidas presupuestarias clave para el desarrollo de la plataforma base, la implementación de casos de uso demostradores y la comunicación estratégica del proyecto.

El proyecto "Espacio de datos para PYMES industriales de Bizkaia" se enmarca en la estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia de fomento de la "Industria y servicios avanzados", impulsada por el Departamento de Promoción Económica con el objetivo de reforzar la competitividad sostenible del tejido industrial de Bizkaia a través de la digitalización y la adopción de tecnologías avanzadas.

CUARTO

El fin del proyecto "Espacio de Datos para PYMES industriales de Bizkaia" es crear una infraestructura digital compartida, interoperable y segura que sirva como habilitadora para la economía del dato en el ecosistema productivo del entorno de Ermua. Este proyecto está concebido para superar las barreras tecnológicas, organizativas y jurídicas que enfrentan las empresas, especialmente las pequeñas y medianas (pymes), para acceder a capacidades avanzadas de gestión, análisis y explotación estratégica de datos.

En este marco, se persigue un objetivo general consistente en diseñar, desplegar y operar un espacio de datos federado que facilite la compartición segura, controlada y trazable de datos entre empresas industriales, la administración pública y otros agentes del ecosistema de innovación. Este modelo se fundamentará en una gobernanza colaborativa y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sortzen ari diren Europako estandarrekin.

estará alineado con los estándares europeos emergentes.

Helburu hau lortzeko honako berariazko helburu hauek definitzen dira:

Para alcanzar este fin, se definen los siguientes objetivos específicos:

1. Ekosistema industrialari estandar irekietan (adibidez IDSArenak eta GAIA-Xrenak) oinarritutako azpiegitura partekatua zuzkitzea, enpresen sistemen arteko elkarreragingarritasuna ahalbidetzeko aukera emango duena, betiere parte-hartzaile guztien datuaren subiranotasuna bermatuz.

1. Dotar al ecosistema industrial de una infraestructura compartida basada en estándares abiertos (como los de IDSA y GAIA-X) que permita la interoperabilidad entre los sistemas de las diferentes empresas, garantizando en todo momento la soberanía del dato de cada participante.

2. Datuak erabiltzeko rolak, eskubideak, betebeharrak eta lizentziak modu gardenean arautuko dituen gobernantza-eredu federatu eta egituratua ezartzea, informazioa trukatzeko behar den konfiantza sortzeko.

2. Establecer un modelo de gobernanza federado y estructurado que regule de forma transparente los roles, derechos, obligaciones y licencias de uso de los datos, con el fin de generar la confianza necesaria para el intercambio de información.

3. Elkarlaneko erabilera erreal eta erreplikagarrien kasuen garapena sustatzea, erronka estrategikoetan, hala nola mantentze prediktiboan, energia-eraginkortasunean edo trazabilitatean industria-datuen ustiapenetik abiatuta balio partekatua sortzen dutenak.

3. Fomentar el desarrollo de casos de uso colaborativos, reales y replicables que generen valor compartido a partir de la explotación de datos industriales en retos estratégicos como el mantenimiento predictivo, la eficiencia energética o la trazabilidad.

4. Teknologia aurreratuak txertatzea eta integratzea, hala nola adimen artifiziala, analitika aurreratua edo biki digitalak, industria-eredu adimendun, erresiliente eta iraunkorragoetarantz eboluzionatzeko.

4. Incorporar e integrar tecnologías avanzadas como inteligencia artificial, analítica avanzada o gemelos digitales para evolucionar hacia modelos industriales más inteligentes, resilientes y sostenibles.

5. Industria-sareko enpresak, ETEei arreta berezia eskainiz, sentsibilizatzea, prestatzea eta laguntzea, datuen kudeaketan, zibersegurtasunean eta araudi-egokitzapenean gaitasun praktikoak eskura ditzaten ezagutza-oztopoak murriztuz.

5. Sensibilizar, formar y apoyar a las empresas del tejido industrial, con especial atención a las pymes, para que adquieran capacidades prácticas en gestión de datos, ciberseguridad y adaptación normativa, reduciendo así las barreras de conocimiento.

6. Eredu erreplikagarri eta eskalagarria sustatzea, etorkizunean Ermuko nodoa eskualdeko, nazioko edo Europako beste datu-gune batzuekin konektatu ahal izateko,

6. Promover un modelo replicable y escalable, de modo que el nodo de Ermua pueda conectarse en el futuro con otros espacios de datos regionales, nacionales o europeos, ampliando las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lankidetza-berrikuntzarako aukerak zabalduz.

oportunidades de innovación colaborativa.

BOSGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira.

Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arau Orokorraren 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, foru-dirulaguntza publikoek, oro har, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala jaso behar dituzte, bai eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetze aldera.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, erabakiaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan.

Hitzarmen hau Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena eta ebazteko neurriak desberdintasunak eta berdintasuna sustatzea sartu da. Hitzarmen hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuak, generoaren

QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 7 de la Norma Foral 5/2005, general de subvenciones, las subvenciones públicas forales, con carácter general, deben incorporar la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, así como incorporar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres con el fin de dar cumplimiento al principio de igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género.

Se incorpora a la tramitación de este convenio, el Informe de evaluación previa de impacto de género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previsto en el artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en cuya redacción se han aplicado las Directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las pautas para la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak finkatzen dituenak, ezarritako jarraibideak aplikatu dira.

realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

SEIGARRENA

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

ZAZPIGARRENA

Foru Aldundiaren iritziz beharrezkoa da jarduketa hau babestea, Bizkaiarentzat interes publiko, sozial eta ekonomiko handia duelako.

Horregatik, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikuluan xedatutakoa betez salbuespen moduan deialdi publikoa oztopatzen duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk egiaztatzen dituzten dirulaguntzak zuzenean eman daitezke.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arau horren 26.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, dirulaguntza zuzenean emateko prozedura honen bidez abian jarri eta kudeatzeko, beharrezkotzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala eta Izarra Fundazioaren artean hitzarmen bat sinatzea, non ezarriko den aplikatzekoa den araubide juridikoa.

SÉPTIMO

La Diputación Foral considera necesario apoyar esta actuación, por su gran interés público, social y económico para Bizkaia.

Por ello, en virtud de lo dispuesto por el artículo 20.2 c) de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se pueden conceder, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en las que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Asimismo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 26.2 de la citada Norma Foral de Subvenciones, para la puesta en marcha y gestión de la subvención, mediante este procedimiento de concesión directa, se considera preciso celebrar un convenio, donde se establecerá el régimen jurídico aplicable, entre la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren 50.3 artikuluan aurreikusten duenez, kasu horietan, emakida-egintza edo hitzarmena emakidaren oinarri arautzailea izango da Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondorioetarako, eta haren gutxieneko edukia zehazten du.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako guztiek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmena arautuko duten

KLAUSULAK

**Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak**

1. Hitzarmen honen xedea da, Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udalari eta Izarra Fundazioari zuzeneko dirulaguntza emateari lotuta dauden baldintza eta konpromisoak ezartzea; hitzarmenaren helburua da "Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektua garatzea .

Proiektuaren helburua industriako datuak modu seguruan partekatzeko azpiegitura digital partekatua sortzea da, Ermua inguruko enpresetan balioa, lehiakortasuna eta berrikuntza sortzeko gai izango dena.

Proiektua fasekako lan-plan batean egituratzen da. Faseak honako hauek dira:

• Diseinu teknikoa, legala eta antolamendukoa: arkitektura, arau-esparrua eta gobernantza-

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50.3, prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, todas las partes mencionadas acuerdan suscribir el presente convenio el cual se regirá por las siguientes

CLÁUSULAS

**Primera.- Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto**

1. Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa al El Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra cuyo objeto es el desarrollo del proyecto "Espacio de datos para PYMES industriales de Bizkaia".

Se trata de un proyecto cuyo objetivo es crear una infraestructura digital compartida para la compartición segura de datos industriales, capaz de generar valor, competitividad e innovación en las empresas del entorno de Ermua.

El proyecto se estructura en un plan de trabajo por fases, que son las siguientes:

• Diseño técnico, legal y organizativo: Establecimiento de la arquitectura, el marco

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eredua ezartzea.

• Sentsibilizazioa eta aliantza estrategikoak ezartzea: eragile parte-hartzaileak eta erabilera pilotuko kasuak identifikatzea.

• Ingurune teknikoa eta azpiegitura garatzea: IDSA konektoreak hedatzea eta plataforma zentrala martxan jartzea.

• Erabilera frogatzaileen kasuak inplementatzea: ingurune errealetan pilotuak aktibatzea (mantentze prediktiboa, eraginkortasun energetikoa, etab.).

• Ekosistemari dagokionez, eskala-aldatzea eta sendotzea: parte-hartzaileen basea zabaltzea eta beste datu-sare batzuekin konektatzea.

2. Proiektu honek arlo honetan esperientzia egiaztatua duten bi erakunderen partaidetza du: Ermuko Udala, datu-gunearen erakunde liderra eta operadore neutrala dena, eta Izarra Fundazioa, gunearen nukleo egituratzailea kudeatuko duena.

3. Hau guztia kontuan hartuta helburu eta xedeei dagokienez Ermuko Udalarenak eta Izarra Fundazioarenak bat datoz Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailekoekin eragile garrantzitsuekiko lankidetza publiko-pribatuaren esparruan lurralde-lehiakortasun jasangarria lortzeko, industria-sarearen eraldaketa digitalera bideratutako ekimenak abian jarriz. Beraz, bidezkoa da Ermuko Udalari eta Izarra Fundazioari dirulaguntza zuzena ematea 2025 eta 2026. urteetan "Bizkaiko ETE industrialentzako datu-gunea" proiektua garatzeko.

Azaldutako guztiak proiektuaren interes publikoa, soziala eta ekonomikoa egiaztatzen du;

normativo y el modelo de gobernanza.

• Sensibilización y establecimiento de alianzas estratégicas: Identificación de agentes participantes y casos de uso piloto.

• Desarrollo del entorno técnico e infraestructura: Despliegue de conectores IDSA y puesta en marcha de la plataforma central.

• Implementación de casos de uso demostradores: Activación de pilotos en entornos reales (mantenimiento predictivo, eficiencia energética, etc.).

• Escalado y consolidación del ecosistema: Ampliación de la base de participantes y conexión con otras redes de datos.

2. Este proyecto cuenta con la participación de dos entidades con experiencia contrastada en la materia: el Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala, en calidad de entidad líder y operador neutral del espacio de datos y la Fundación Izarra, que gestionará el núcleo orquestador del espacio.

3. Por ello, existe una coincidencia de objetivos y fines del Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra con los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia para lograr una competitividad territorial sostenible poniendo en marcha iniciativas que, en el marco de la colaboración público-privada con agentes relevantes, se encaminen a la transformación digital del tejido industrial. Por lo tanto, procede otorgar una subvención directa al Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra para el desarrollo del proyecto “Espacio de datos para PYMES industriales de Bizkaia” durante el año 2025 y 2026.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este proyecto ya que permitirá a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izan ere, proiektuari esker ETEek banaka garatu ezingo lituzketen azpiegitura eta gaitasun aurreratuak eskuratu ahal izango dituzte, abian jartzeko Ermuko Udalak eta Izarra Fundazioak duten eta "IoT Basque Izarra Lab" aurreko proiektuan izandako esperientziatik eratorria den know-how espezifikoa behar baita, eta planteatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik ez erabiltzea justifikatzen du.

las pymes acceder a infraestructuras y capacidades avanzadas que de forma individual no podrían desarrollar ya que la puesta en marcha de este proyecto requiere de un know-how específico del que disponen el Ayuntamiento de Ermua y la Fundación Izarra, derivado de su experiencia en el proyecto previo "IoT Basque Izarra Lab, y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

4. Dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatiko edo martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena) jasotako diskriminazio multipleko faktoreengatiko diskriminazioa eragiten duen jarduera.

4. El objeto de esta subvención no constituye actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

5. Dirulaguntza honen xedea ez da tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan arau-haustetzat jotako jardunbideei aurre egiten dien, eragiten dien edo horiek onartzen dituen jarduera edo helburua betetzea.

5. El objeto de esta subvención no constituye actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

## Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Laguntzaren erakunde onuradunak Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala, P4804100H IFK eta Izarra Fundazioa, G95698973 IFK duenak.

2. Onuradunek egunean dauzkate zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

3. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez daude Foru Administrazioak emandako

## Segunda.- Entidad beneficiaria

1. Las entidades beneficiarias de esta ayuda son el Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala con CIF P4804100H y la Fundación Izarra con CIF G95698973.

2. Las entidades beneficiarias se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

3. Las entidades beneficiarias de la subvención no se encuentran incursas en ninguna de las

dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeraren batean, eta foru arau horren 13. artikuluan ezarritako betebehar guztiak bete behar dituzte.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez daude Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuen eraginpean, ez dago Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeran, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

5. Halaber, erakunde onuradunei ez zaie zigor administratibo, laboral edo penalik ezarri sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik. Era berean, ez zaie zigor administratibo edo penalik ezarri LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik.

6. Onuradunak ez dira administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuta izan Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

7. Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du entitate onuradunek baimena ematen dutela Bizkaiko

circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y están sujetas al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

4. La entidades beneficiarias de la subvención no están incursas en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres, no concurren ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

5. Las entidades beneficiarias no han sido sancionada administrativa, laboral o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad. Tampoco han sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

6. Las entidades beneficiarias no han sido sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

7. La firma de este convenio conlleva la autorización de las entidades beneficiarias para la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y del resto de datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1. Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia.

2. Hitzarmen honetan jasotako jarduerak gauzatzeko epea 2025eko irailaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

3. Dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa aurkezteko epea 2027ko martxoaren 31n amaituko da. Justifikazioa Ekonomia Sustapen Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztuko da, hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako baldintzetan, eta hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

Tercera.- Plazo de vigencia del convenio

1. Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo.

2. El plazo para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija desde el 1 de septiembre del 2025 hasta el 31 de diciembre de 2026.

3. El plazo para presentar la justificación de la aplicación de la subvención finalizará el 31 de marzo de 2027. La justificación se presentará a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, en los términos establecidos en la cláusula sexta de este convenio y sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación con las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia de este convenio.

Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa laurehun eta hirurogeita zazpi mila eta bostehun eurokoa (467.500,00 €) da, eta hori da baimendutako aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa. Kreditu hori 2025 eta 2026 ekitaldietako aurrekontuko 2022/0068 "Eskualde-lehiakortasuneko proiektu estrategikoak"

Cuarta.-Obligaciones y compromisos de las partes

1. La cuantía de la subvención asciende a cuatrocientos sesenta y siete mil quinientos euros (467.500,00 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a las partidas presupuestarias 08.09/433.121/451.00 y 08.09/433.121/732.99 proyecto presupuestario

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SJ9N-PYJ0-IA73-SBVM
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurrekontu-partidako 08.09/433.121/451.00 eta 08.09/433.121/732.99 aurrekontu-partiden kargura izendatzen da.

2022/0068 "Proyectos estratégicos de competitividad comarcal" del presupuesto de los ejercicios 2025 y 2026.

Zenbateko osoa honela banatuko da erakunde onuradunen artean:

La forma en la que se repartirá el importe total entre las distintas entidades beneficiarias es la siguiente:

| Aurrekontuko partida / Partida presupuestaria | Proiektua / Proyecto | Ekitaldia / Ejercicio | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|---|
| 08.09/433.121/451.00 | 2022/0068 | 2025 | 45.500,00 |
| 08.09/433.121/732.99 | 2022/0068 | 2025 | 300.000,00 |
| | | | |
| 08.09/433.121/451.00 | 2022/0068 | 2026 | 92.000,00 |
| 08.09/433.121/732.99 | 2022/0068 | 2026 | 30.000,00 |

2. Zenbateko hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehienezko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daiteken gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

2. Esta cantidad tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, sin que en ningún caso el posible aumento del importe previsto de las acciones a desarrollar implique aumento de la aportación concedida.

3. Hitzarmena sinatutakoan ordainduko da dirulaguntza. Ordainketa aurreratua izan arren uste da ez dela beharrezkoa erakunde onuradunek bermeak eratzea, uste delako ez dagoela hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrak ez betetzeko arriskurik; Ermuko Udala eta Izarra Fundazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren ohiko laguntzaileak dira.

3. El pago de la subvención se realizará a la firma de este convenio. A pesar de tratarse de un pago anticipado, se estima que no es necesaria la constitución de garantías por parte de las entidades beneficiarias por no apreciarse riesgo de que incumplan con las obligaciones derivadas de este convenio; el Ayuntamiento de Ermua-Ermuko Udala y la Fundación Izarra son colaboradores habituales de la Diputación Foral de Bizkaia.

